



# OMENDU NAHIAN ETORRI GARA

Doinua: Omendu nahian etorri gara

Neurria: Kopla handia (hg) / Bi puntuko handia (ip)



Ixiar Eizagirre Kerejeta

- 1** Omendu nahian etorri gara gure herriko **okina** batzutan ogi errea dauka eta bestetan **gordina**. (bis)
- 2** Omendu nahian etorri gara gure herriko **auzapeza** ingurukoak lanean jartzen ere ez da lan **erreza**. (bis)
- 3** Omendu nahian etorri gara herriko **irakaslea** berak ahoa zabaltzen badu sartzen zaigu **logalea**. (bis)
- 4** Omendu nahian etorri gara gure herriko **jostuna** galtza beltzetan hari zuria sarritan jarri **diguna**. (bis)
- 5** Omendu nahian etorri gara gure herriko **apeza** gu xuxentzeko asmotan bada alperrik da bere **meza**. (bis)
- 6** Omendu nahian etorri gara gure herriko **artzaina** bere ardiak besteen pentzetan sartzea maite du **baina**. (bis)
- 7** Omendu nahian etorri gara gure herriko **medikua** bere ipurdian proba dezala txertoaren **zimikua**. (bis)
- 8** Omendu nahian etorri gara herriko **ostalaria** ardoa ozpin bihurtzeraino egiten du **miraria**. (bis)

